

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2020 000003156

**Espediente-zenbakia:** 2020/IDA\_ERA\_0105**Xedea**

**2020. urtean udal Aurrekontuan** aurreikusita egon dan dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Itsuki Irratiagaz sinatutako hitzarmena luzatzea onartzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2020ko uztailaren 28ko Tokiko Gobernu Batzarrean, Itsuki Irratiaren alde 2020. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita egoan dirulaguntza nominatiboa bideratzeko hitzarmena sinatzea onartu zan.

Bigarrena: 2020ko abuztuaren 10ean, hitzarmena sinatu zan.

**Argudioak**

Lehenengoa: Hitzarmenaren 13. atalaren arabera, hitzarmena urtez urte luzatu leike, gehienez 4 urtera arte, eta egoki ikusten da luzapena onartzea, beti be 2021. urterako Aurrekontuan zuzkidura nahikoa egotearen baldintza etengarriaren menpean.

Bigarrena: Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen dau bere 5. artikulua, Toki Errejimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLaren 111. Artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. Artikulua eta Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak hartu dira kontutan.

Hirugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikulua f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, baina 2019ko ekainaren 21eko 1.479 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Halanda be oporraldian Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenak zehazteko 2019ko abenduaren 17an emondako 2.952 Alkatetza Dekretuaren arabera, alkateari jagoko erabagi hau hartzea.

**Erabagia**

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E4000599C900L3I0Z0D8G0R7

**Sinadurea eta dataa**

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 30/12/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/12/2020  
10:06:06

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_ERA\_0105

Data: 05/06/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



Hori guztia dala eta, honakoa erabagi dot:

**LEHENENGOA:** 2020. urteean udal Aurrekontuan aurreikusita egon dan dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Itsuki Irratiagaz sinatutako hitzarmena urtebeterako luzatzea onartzea, beti be 2021. urterako Aurrekontuan zuzkidura nahikoa egotearen baldintza etengarriaren menpean.

**BIGARRENA:** Interesdunari erabagiaren barri emotea.

**HIRUGARRENA:** Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

**LAUGARRENA:** Erabagi hau diru-laguntzen base nazionalen argitaratzeko agindua emotea Idazkaritza Sailari.

**BOSGARRENA:** Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E4000599C900L310Z0D8G0R7

**Sinadurea eta data**

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 30/12/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/12/2020  
10:06:06

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_ERA\_0105  
Data: 05/06/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

